



ELKARLAN SARIAK 2022

Garaion Naturartea elkartea bere sorreratik amets, gogo eta auzolanaren bitartez sortu eta eraikitako proiektu bat izan da. 2008 an sortu zen elkarte bezala eta bertan herrigintzan aritutako jende ezberdina elkartu ginen proiektuari forma eman eta gizarteratu nahian.

Gurean badakigu auzolanaren eta elkarlanaren garrantzia zeinen haundia den espazio bat eraikitzeko. Elkarbizitzak dauzkan onurak ezagutu ditugu, nahiz eta oztopo askori aurre egin diogun eta seguruenik agertuko diren berriz ere.

Garaion sorgingunea, pixkanaka espazio kultural errekonozitu bat izatera pasatu da urte guzti hauetan, eta oraindik askok daukate gure etxaldea eta jarduna deskubritzeko. Espazio kultural bat landa antzoki batekin, sormen leku, eta eskola izaera duena. Poliki- poliki gero eta integralagoa den espazio bat bihurtzen ari da Garaion sorgingunea, elkarteak urte hauetan ehundutako jendarte sare haundi baten laguntzaz, eta hiru ardatzen bueltan: Sormena, Natura eta Ondare Soziala.

Espazioa bioeraikuntzan eta auzolanean berregina izan da, eta elementu naturalak izan ditugu beti lagun, aintzinako jakituriak berreskuratu nahian. Eta auzolanean bizitzearekin batera, elkarlanaren sustatzaile izatea ere izan da gure konpromezua. Partehartzeak herrietan, auzoetan, eskoletan...kalean duen garrantzia argi uztea. Horren harira Elkarlan Sarietan saritutako Bizi-Bizia proiektua: Espazio bizi eta berdeak sortzea herriaetan herritarrekin eta herriarentzat.

Herritarrek herrian ardura har dezaten, arduradun sentitu behar dira, sortzaile eta parte. Partehartzeak zerbaiten parte izatea dakar eta hori persona guztiek behar dugu. Espazio publiko bat herritarren artean diseinatzea da Garaionek Bizi Bizia proiektuarekin eskatu nahi duena. Eta horretarako bizirik dauden zuhaizkak landatzen dira, mila topagune berde sortzeko aukera dagoela erakutsiz. Proiektu nahiko berria da nahiz eta urte batzuk daramatzan martxan. Dena den, esan beharra daukagu Bizi-Bizia proiektua beste proiektu baten jarraipena dela, AuzolanArtean izena zuena. Proiektu honetan gazteak ziren protagonista. Beraien herrietako espazio publikoetan artelanak diseinatu eta eraikitzen (haundiak izaten ziren) zituzten elementu naturalekin. Hitza hartzeko aukera ematen zitzairen eta ahotsa hartzeko modu bat zen, lasto, adar, korda, hosto, artile, egur...ekin mundua azkarregi zioala esateko: barraskilo erraldoi bat egiten zuten landa haundi batean; edo, aske izatea nahi zutela esateko hego haundi batzuk zintzilikatzen zituzten herriko dorre altu batean... horrelako 100 adibide. Eta guk posible egiteko bideak erraztu nahian herrietako erakunde publikoak ere inplikatzeko genituen haiekin elkarlanean, batzuen baliabideak eta besteen sortzailetasuna uztartuz. Land-Art barruko artelan haiek efimeroak ziren, eta efimero kontzeptuari ere garrantzia eman nahi genion, denbora zehatz batean sortzen dira gauzak eta badute bere bukaera, guz bezalaxe.

Denborarekin ehuntze teknikan sakontzen joan ginen, zuzen iritsi arte. Otarregintza tradizionaletik garaikidera, eta zume biziarekin arkitektura berdea ezagutu arte. Ordundik zume bizia erabiltzen dugu espazio publikoan topaguneak egiteko. Herri osoak ikusgai eta erabilgarri izango dituen espazioak herritarrek beraiek sortuak, eta urtaroz urtaro kolorez aldatuko dutenak

Bidea polita izaten ari da, baita gogorra ere eta sariak arnas apur bat hartzeko aukera eman digu, momentutxo batean gelditu eta egin dugun guztiaz jabetzeko. Elkarlan sariak, gure jarduna



zabaltzeko aukera ere eman digu . Gainera erakunde baten eskutik egiten duguna baloreen jartzeak ahaldundu egin gaitu nolabait. Partehartzeari, elkarlanari eta naturari keinu bat egin izango balitzaio bezala..

Zumearekin eraikitako topagune biziak urtero aldakorrek diren egiturak dira Gehienbat jolasguneak egin baditugu ere, eta erabiltzaile sutsuenak haurrak badira ere, publiko orokor batetara zuzendu beharreko “produktu” bat dela uste dugu. Eta hori ikusi ahal izateko “eskaparate” ikusgarriena Garaion Sorgingunea dela ere badakigu. Bertan eraikuntza bizien adibide politenak aurkituko ditugu.

Izan ere Bizi-bizia Garaionen barruan kokatzen den ezaugarri bat da, proiektua osoaren islada. Horregatik Garaion proiektua ezagutarazi beharra ere ikusi dugu, gure filosofia eta adierazi nahi duguna ezagutzeko. Elkarlan Sariaren bitartez hau modu visual eta ulerkor batean batzeko bideak landu ditugu. Alde batetik Garaionen aurkezpen bat, bere balore eta lanen azalpen orokorrekin, eta bestetik proiektuak gauzatzeko daukagun filosofia azaldu nahi duen ipuin bat sortu ditugu. Konturatu gara proiektuak garatzeko batzutan erreferenteak izatea dela lehenengo urratsa, eta posible denaren adibideak. Ezagutza transmisioan gure ibilbidea azaltzen saiatu gara herritarren eskura.

Proiektuaren zabalkundea egiteko material hau izateak asko errazten digu. Izan ere Garaion zer den azaltzea askotan ez da hain erraza izaten gauza asko hartzen dituelako bere baitan. Material hau sortzeko hartutako tartetxoarekin orden apur bat emateko aukera izan dugu: zer garen, zer nahi dugun, norekin nahi dugun, nora nahi dugun eta nola nahi dugun egin... Norabide bat zehazten joateko.

Guk gizartearekin egite dugu lan eta ezagutza trasferentzia ere ahalik eta modu orokorrean egin beharra ikusten dugu. Hezkuntza sektoreari zuzendu nahi diogu informazio hau, bai hezkuntza formal zein ez formalean ari direnei. Herri elkarteak, auzo elkarteak...Dena den, jakin badakigu erakunde publikoek zerikusi haundia dutela hauen ahalmen ekonomikoarekin, eta gehienetan haiengana jo behar izaten dugu proiektua aurrera eramateko.

Herrikidetzarako proiektu bat dela esan dezakegu, partehartzean egiten den proiektu bat eta elkarlanaren bitartez zentzua hartzen dueña

Zailtasunen aurrean guk askotan diogun bezala: *Bizirik dagoenak bakarrik loratzen duelako.*